M. Pelay Orozkoren zintzotasuna oroituz

Hil honen hamazortzian lagunarteko omenaldi bat jaso zuen Migel Pelay Orozko donostiar idazleak. Bere zintzotasunak nere artikulu hau baino hoberik merezi du, baina zenbait oroitzapenen oharrak egin nahi nituzke.

Pelay Orozkok gizaldi bateko idazleen joera merkatzen du. Batez ere, euskalduna izanik gaztelera landu eta gazteleraz idatzi dutenetakoa; baina horrez gainera, bere kasoan, euskarazkoan inoiz murgildu ez ezik idatzi ere egin duena eta erdararen bidez gure autoreen berri eman duena. Bestalde, gure artistetatik pelotarietara arte, bere liburuen orrialdeak ez ezik kapitulu eta liburu osoak bate dituena. Baina, nere aldetik beste arrazoirik ere badut eta horiek adieraztea nahi nuke.

Gazterik Euskal Herriaren historiaz eta kulturaz kezkatzen hasi nintzenean, bide sasitsuak aurkitu nituen, harek eta Campión-en irakurketaren laguntzaz argi izpia agertu arte. Nere inguruan aurkitzen nituen abertzalerik gehienak sendimendu hutsezkoak ziren, jakituriaz urri eta fantasiaz ugari hornituak. Liberal jitez S. Arana Goirik ez nindun betetzen eta bere jarraitzaileek gutiago. Campión besterik zen.

Egia esan, euskal liburuak aurkitzea ere ez zen gauza erraza. Liburu-denda guti batzutan ezagunen bidez lortzen zen zerbait gerra aurreko edizioetarik eta isilpean herbesteetan argitaratzen zenetik. Bilaketa haietan ezagutu nituen idazle abertzaleen artean atseginenetakoa iduritu zitzaidan "Olarso" izenordepean agertzen zen Migel Pelay Orozko bere liberaltasunagatik. Norbaitek errekomendatu zidan **Preludio sangriento** zeritzan eleberria eta bere bila hasi nintzenean topatu nituen lehenik **Retablo vasco** eta geroago **El ritmo de la época**. Horietan aurkitu nuen idazle nare eta goetatsua, abertzale izanik kultur gaiak politika baino maiteago zituena, bere adiskide Iñaki Urreiztieta zenak aitortuko zuenez. Ondorean ezagutu nituen **A la sombra del Aitzgorri** eta gerokoak. Azken obra hortarako bigarren partea **El escritor y su brújula** deritzanean berriturik agertuko zuen eta bertako gaiak asko esaten dute garai hartako abertzale baten alde.

A la sombra de Aitzgorri hainbeste zaletu zuen pilotaz hasten da eta ondorean hiru liburu idatziko zituen Euskal Herriko kirol jator horri buruz, duela hiru urte **Los Pelotaris** izenburuz hirurak liburu batean birargitaratuko zituenak. Bertatik ikus maitatzen duena gai hartzen duela eta fiderki jarrai. Era berean jarraituko ditu euskal artistak eta idazleak ere. Gainera, maite ditu Baroja eta Unamuno, gure artean edozein memelok arbuiatuak. Hoieri buruz ere orrialde ederrik idatziko zigun. Baina, era berean, euskarazko idazleak ezagutzeko doaina ere izan zuen, hortarako euskararik aski dakienez, eta idatzi ere egin du, bereziki **Gran país, difícil país...** eta **La encrucijada** liburuetan. Pundu eztabaidatsuak ikutu zituela?. Hala ere, ideia errespetagarriak dire bereak. Asmorik onenez eginak.

Barojari buruzko bi liburuak eta Oteizaren bizitza, lanak pentsaera txukun jaso zituen.

Euskarazko literaturatik maiteenak Iztueta, Iparragirre, eta Bilintx zituen Pio Barojak bezala, eta aitortzen du Barojak Lizardi bezalako bat ez ezagutzearen kaltea. **La ruta de Baroja** deritzan liburuaren 188. orrialdean irakur daitekenez Pelay Orozkok ongi ulertu zuen Lizardiren balioa poesi sortzaile bezala, ekarriaz gainera poesi teknika, hizkuntz landua eta irudimena. A. Zavalak, **Bilintx** lanerako itzultzaile egokia aurkitu zuen Migel Pelay Orozkogan:

Omanaldi egunean, penaz entzun nituen bere eskertza hitzak: gaur, orain hogei urte baino gutiago irakurtzen dela; duela hogei urte, orain berrogei baino gutiago; eta, zalantzarik gabe, joan zen mendearen azkenaldian Donostian M.Soroa, Arzak, Serafin Baroja eta beste zenbait elkarren artean biltzen ziranean literaturagintzarako giro hobea zutela nonbait. Baina esta hori bakarrik. Penagarriago zaigu garai hartakoak beren lanak euskaraz ematen zituztela jakiteak. Gainera, Migelek argi erakutsi duenez, Bilintx ez zen askok uste zuten bezalako arlote horietakoa, baizik garaiko poeta erromantikoak ezagutzen zituen eta anitz irakurria zen.

Gaztaroan, irakurri nuen Miguel Pelay Orozko idazlearen oroitzapen onak ditut. Bere idazkera ez ezik bere pentsaera liberala era maita nuen. Idazle bezala, goragoku mailak merezi ditu eta goragokoak izango zituen noski bere herriaren maitasunez hemengo gauza tipieri hainbeste loto ez balitz. Baina, bestalde berari esker, ospe hobea dugu baztarretan euskaldunok. Eta, euskal idazleak badute zer ikaririk bere estil eta adierazpenetatik. Langiletasunean zer esanik ere ez hogetaka liburuak idatzi dituenagatik.

Baina inork ez dezala pentsa Pelay Orozkoren Euskal Herriaganako maitasuna itsua izan denik. Lehen aipatutako lanez gainera hor ditugu **Dialogos del camino** eta **Portiko Euskariano**, gure izakeraz, naiz on edo naiz txar, egiten dituen saiaerak erakusten ditugunez, zintzotasun osoa nabari da. Zintzotasunik garbiena nabari den bezala **Retablo vasco** deritzan liburuko "Castilla y Euskadi" kapituluan, eta guretzat gaur egun ere hain baliagarri zaiguna, zeren norperarena maitatzeko ez baita beharrezkoa besteak gorrotatzea. Pelay Orozkoren erakutsian.

Juan SAN MARTIN

Tras el sencillo homenaje de amigos al escritor Miguel Pelay Orozco, es de rigor dedicarle unas líneas por tratarse uno de los pocos escritores vasquistas que atrajo mi atención en la juventud. Su obra ha sido esencialmente en castellano y con gran amor hacia esa lengua, pero que ha leído y escrito también en vascuence lo que le sitúa en una disposición especial para prejuzgar sobre otros escritores vascos en castellano que siendo incapaces de interpretar una sóla línea han pretendido dar sus "lecciones de universalidad" y con frecuencia caen en pura charlateanería, mientras que Pelay Orozco ha expuesto a la galería exterior, además de pelotaris, músicos y artistas plásticos, a literatos euskaldunes marcando sus peculiaridades y sus preferencias entre autores, tomadas de primer mano y selladas con su propio criterio, autores como Iztueta, Iparraguirre, Bilintx, etc., muchas veces con juicios comedidos, como en aquel párrafo sobre Lizardi en ***La ruta de Baroja:*** *"En Lizardi parece que se unieron la inspiración, la delicadeza y la sensibilidad con una técnica muy literaria y muy elaborada. Es considerado hoy por muchos enterados, como la cumbre de la poesía euskérica de todos los tiempos".*

De joven, cuando empecé a interesarme por los temas vascos, deseoso de informarme sobre nuestra historia y cultura, el camino a recorrer de veras me fue muy intrincado, por la ignorancia reinante entre los vasquistas que me ro-
deaban y por la ausencia de obra escri
mercado normal del libro como con
de una prolongada postguerra. El
estaba muy controlado. A través de
favores se lograba algo de los peque
tos de preguerra que exitían en algun
rías y con algunas dificultades y riesgo
se consegula algo de lo que se produ
exilio. Este era el caso de las obras de
Orozco, que venían firmadas bajo el
de "Olarso".

Por mi formación liberal, rechazaba
de las lecturas recomendadas por los
de leer a autores que no fueran corre
suyos, cuando por mi parte era preci
que buscaba, considerando recon
hurgar en lecturas contrastables en
miento y credo, aunque fueran
Puedo decir que la toma de concien
quista debo mucho a Campión, y des
llos primeros contactos data mi admi
Baroja y Unamuno", mostrando su
beral.

Alguien me recomendó la novela
sangriento *(Premio Euskadi de Plata*
reedición, año 1982), en torno a la guerra
Durante su búsqueda di con las obras
vasco *y* ***El ritmo de la época*** *del mismo*
que me causaron honda impresión.
amante de lo suyo sin menospreciar
sereno meditador y más amigo de la
que de la política, por ende admirador
roja y Unamuno, que ya habían causado
en mí. Y, a continuación conseguí a ***A la***
bra del Aitzgorri *que contiene una parte*
ficativa como muestra de vasquista
las semblanzas arbitrarias. Autor que
cima de todo mantiene fidelidad a
principios señalados por Justo Gárate
erudito prólogo a ***El ritmo de la época***
que cultivar lo propio, pues todos
chico a lo grande, de la niñez al estudio
de lo efectivo a lo racional y por
común punto de partida es para
vascos, nuestra querida Euskalerria
decía Paracelso: ***Nemo sit alterius qui***
potest". *Y, quizás aquel capítulo*
segunda parte de ***Retablo vasco***
Euskadi, sigue siendo una lección
gente sobre el comportamiento cívico
muestra la calidad humana de Miguel

Folklore

Hitz hau bethi ere herri kultivatu gehienetan mesprezuaz errana izan da. Elhe hunen sêmantikêa' **folk = herri** ta **lore = jakintza** da. Bietan beraz, hitz hau' mesprezuaz erraitea ongi zegoen' lehenik elhe hau eratu zuten lehen mementuan danik, mundu osoaren kulturan eginikako maltzurkeria kultural batekin lothuta egonik delakotz Jukutria hunen izena **Ossian**, eta haren aita maltzurra **James MacPherson**. Personaie hau bere bizi osoan poêta tzar bat baizik ez zen izan, berhain **Ossian** baira huntaz 1761/n argitara emana bere izena Europa osoan jakinarazi zuen. Poêma faltsu hauk' Scotiako irlandara zaharraz aurkhitu zituela erraiten zuen, eta orduan haren anglarazko itzulpena publikoari eskainten zeraukon. Poêmak, oso tzarrak ziren' bainan bere epokha hortan' egiazko kulturaren kontrako oldar irrazionalak bizi ziren. Gizon primitivu ta salbaiaren errotikako ontasunari buruzko maltzurkeria zabaltzen ari zen, eta hunelako kultur atmosphairan hunelako ohointza intellektualak kausitze erraza eduk zezaken. Zortzi urthe geroago, poêma hauien pseudo-itzulpena alemanaraz ere **Denis** izeneko irazle batek publikatu zuen, eta orduan danik faltsukeria hrau Alemania zabaldu zen. MacPherson bere engainu huntaz hoin pozik zegoen, non **Temora** izeneko poiême epiko luze bat izkiriatu bait zuen, eta publikatu. Poiêsi hauk' **Ossian** izenekoak bezain tzarrak ziren, eta batez ere alegia itzulpen hauien originala bertzeak baino tzarragoa zen, eta jukutria are garbiago.

Orduandanik **Ossian** izenarekin batera dioaz intellektualezko bluff guztiak. MacPherson bezalako kulturazko bluff-mythoak guztiak, eta hau batez ere egiazko kultura ezagutu ukhan ez dituzten herrietan, non kultura eta berez erdeinugarria baizik ez den folkloreaz nahasten diren. Hunelako herrietan bethi agertzen da herri-kulturaren fluffezko mythoa, eta harekin batera' bluffezko personaieak zerutiar goietaraino ailtxazen dira.

Folklorearen mythoa, hau da "herri-kulturaren" mythoa' bethi erabilten da egiazko kultura kreatu ez dituzten herrietan, zeren eta herriak nehun ere nehoiz ez bait dira izan kultur kreatzaileak, baizik eta bethi kultur konsummatzaileak. Bainan kultur-konsummatzean ari izaitekotz bethi kultura kreatu duten persona batzu eduki behar dira, eta hunelakoak edukitzeko zoriona ukhan ez dutenetan' orduan gabeziaren estaltzekotz, sortzen dira herri-kulturari buruzko ikhertzapenak eta bautemaiteak. Zoritzarrez askotan Euskalherrian gerthatzen ohi den bezala.

Halakotz folklorea' herri batetan goresten dela entzun dezagunean' ba dakigu nola ekhintza huntaz, berez kultur gabezia bat baizik ez dena estaltzen den. Huntara ere herri-literaturaren ikhertzaileak' bethi hegaltada aphalen gizonak dira, eta beren minus-valio intellektuala hunelako ekhintzaren bidez maltzurkeriaz estali nahi lukete. Folkloreak halakotz mundu intellektual osoan merezi duen mesprezuaz traktatzen da, eta herri primitivu edo salbai bat jakintzaz ikhertzen denean ekhintza hunen izenezatzekotz: **ethnographia** ta **ethnologia** elheak erabilten dira.

Bainan hau baino gehiago **Ossian** eta **Folklorea** ez dira soilik intellektualezko ohointzaren symboloak' hau baino gehiago kulturaren noizbait tendentzia irrazionalak sorthu bait, hunelako symbolekin ere elkharturik ikhusiko ditugu. Halakotz ez da estonagarria baldin eta systêma politiko nazi-faxista batzuetan, non Logoaren orde' herrien subkonszientzia irrazionala adoratzen zen, bethi **Ossian** bezalako maltzurkeriak eta falsifikakuntzak konsiderazione handian egonik ba dira. Eta gaur-egun ere nahiz eta MacPhersonen engainua mundu osoan ezagutzen denagatik' hunelako korrente irrazionaleen eta anti-intellektualeen herrialde privilegiatua den Alemanian' oraino ere bizirik dagotza. Huntara nazien Alemanian nazismuaren epokhan "võlkisch" hitz berria lantu zuten, zeinaren bidez herri baten psykhê alogoaren apotheôsia egin nahi bait zuten. Gaur egun, noiz eta gizon bat soilik kulturaren eta paideusiaren bidez egiazko gizon libroa bilhakatzen dela dakigun, eta hunelakoa izaiteko' gizon guztiek beren evoluzionearen bidez bere izaikarian daramaten burufuin herpystikoa reprimitu behar duten, hunelako tendentzia irrazionalistak' erraz ikhus ditzazkegu nundik dathortzan, eta zeintzu diren heien helburuak, batez ere plebea lausegatzen dutenean. Halakotz' erraz ikhusiko dugu bethi nola Folklorearen banderaren azpian eta **Ossian** sloganaren atzean mediokreak estaltzen diren, eta hunela kreatzen diren bluffezko intellektualak, hok baino guttiago diren politiko mesprezugarriak agitzen duten, ez herri bat' kulturaren bidez libroa bilhakaraztekotz aitzitik pseudo-intellektualen bluffezko mythoez trompatzekotz.

Eta hau batez ere Euskalherrian importanta da, zeren eta txapel ttipien erresuma huntan' mediokritatea bethi **jaun eta jaube** izan bait da, tendentzia politiko ta patriôtiko batzuetan, eta egiazko intellektualak bethi gorrotatu bait dituzte hunela jaun eta jaube ziren politikari mediokreek; herria kulturalezko indigentzian gordetzeko asmoaz. Euskalherri huntan mediokreen politikaz, mediokreek gubernatzen dute, eta bluff baizik ez diren mediokreak jukutriaz Euskalherriaren gidatzaileak bai liren' apotheôsian sartzen dituzte.

Ait ledi alda egokera hau Euskalherrian; bertzenaz Euskalherria jarraikiko bait da bere amets tontorroinez lehen bezzala izaiten; **euskaldun = fededun**... ara: **txapelttipidun.**

Federico KRUTWIG SAGREDO

A nadie le extrañará que la palabra folklore, que en principio debe significar, según su semántica inglesa, ***folk = pueblo*** *y* ***lore = ciencia*** *esté tachada de populachera y chabacanería, cuando no de algo peor, que es de falsedad y fraude intelectual. Y esto no sólo porque se trata de un sentimentalismo pseudocientífico de habitantes de ciudad que están soñando con la Arcadia dorada. En efecto, este término está íntimamente ligado desde los primeros años en que fue acuñado, a uno de los más desdeñables fraudes intelectuales que ha conocido la cultura. Se trata del engaño intelectual cometido en 1761 con la publica*
unos poemas mediocres llamados Ossian
de un pésimo poeta, quien nunca había
el menor éxito literario, pero quien, con
baucador, triunfó. Pretendió haber en
los poemas antes mencionados en ma
antiguos y haberlos traducido al inglés.
época en que aún coleteaban los últimos
zos del obscurantismo enemigo del
miento y de la cultura clásica, esa
blicación fue recibida con entusiasmo.
el joven Goethe, que empezaba a escri
primeros ensayos literarios, y quien
había sido educado por la señora
cayó casi en éxtasis. Contento de su
telectual, su autor Jaime MacPherson
hasta re-construir los falsos originales,
sultaron ser tan pésimos como las
ducciones.

Desde entonces el folklore va unido
pulachero y chabacano, y se emplean
como etnografía o etnología, cuando
de estudiar científicamente a las cultu
mitivas. De igual forma, en Inglaterra
chaza, hoy en día, el bluff intelectual
nian los poemas del bardo Ossian, y
va unido a todo lo que significa bluff
tual, falsos valores científicos y
los auténticos valores literarios.

Como en nuestra tierra hemos tenido
gracia de no haber tenido casi nadie
plia cultura clásica, caemos con frecu
los errores que podríamos simbolizar
deras como Ossian y folklore, ya que
se dedican aquí a "investigar" sobre
popular es porque no tienen vuelos
por ello son incapaces de crear algo
popular para que el pueblo vasco
turalmente, a fin de comprender lo
vuelos más elevados. Estas tendencias
populachero-chabacano recibieron
auge en ciertos regímenes nazi-fascis
en Alemania, donde se forjó un nuevo
"völkisch" para substituir al
ch". ***Völkisch*** *debía ser algo así como*
nación del alma popular, de quienes
han sido humanizados por la auténtica
la consagración "intelectual" de los
lo irracional, de la pseudo-cultura,
sificaciones del estilo de Ossian.